

## Euskara idatziaren batasunaz aurrekari bat

Deia, 1983-06-12.

Bokazioz eta hezkuntzaz kazetari naizenez gero, begirune handia diot hitzari.

*Hitza* ez baita gure funtsezko erreminta bakarrik: ba da esandako hau, noski, baina funtzio honen gaintik, gainezka!, esan behar da hau izango dela gizonak bere baitan eta gero gizartezkoan nekezen heldu arazi duen inbentorik miresgarriena, eta, alde batetara edo bestera, gaur idazten duenak *aukera batez* erabiltzen duena.

Aukera honetan dago, funtsean, hizkuntzaren misterio itxia, eta, beste maila batetan, arruntenean, hizkuntza berean idazten dutenen arteko aldea.

Hiztegi beretik zein hitz ezberdinak aukeratzen ditugun!

Eta aukeratutakoak zein ordenaketa diferentean tajutzen!

Gai hontaz pentsa arazi dit gaur darabilgun euskara idatziaz orain dela ia gizaldi laurdena *Egan* aldizkarian (1960, 3-6, 121-134) argitaratua izan zen saiakera bat irakurtzen ari naizela; ordukoz "Asaba zaharren baratza" idatzi zuen hizkuntzalari hau aspaldi ari zen, berezko duen talentu eta bihotz zabalarekin, hitzak "aukeratzeko" zegoen behar gorriaz.

Edozein euskaldunek ba daki Koldo Mitxelenaz ari naizela.

Garai hartako kinken artean bat zen euskara *garbiaz* ala *biziaz* aukera egin behar zela garbi adierazi eta gero, gazteei justiziazko ezagutza eder hau egiten die: "Horregatik maite ditut gaurko gazte asko: tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako, lohiaren beldur ez direlako. Ba genekien lehen euskara sail askotan lantze-zain zegoela eta halaz ere uko egiten genion maiz eginbeharrari, behar bezain garbiro gauza ez ginelako. (...) Ba dakite, ordea, hori baino gehiago dena: norbaitek oker edo zuzen, trakets edo dotore, garbi edo mordoilo lantzen ez badu, lantzeke geldituko dela alorra. Egungo trakeskeriatik bakarrik jaioko da biharko edo etziko apaintasuna".

Mitxelenak aipatutakoak Ipar eta Hegoaldeko orduan gazte eta orain heldu, orduan eta orain Euskaltzaindiaren bitartez "ekin eta jarrai" euskaraz idazten ari izan direnak asko dira, behar izan ditu gure hizkuntzak gaurko komunikabideetarako euskara gai izan dadin.

Gaur hau esatea errazago da orain hogeitaka urteko giroan baino.

*Mitxelenaren idazlan hautatuak* ikasi nahiez berrirakurtzen ari naizen honetan sumatu dut euskara egoera hartatik gaurkotasunera eta etorkizunera irteteko bidea jarri zuten haien gorasarre hau sartzeko gogo-beharra. Ni neu ere zorretan bainabil. Eta Koldo Mitxelenak buru argiz ikusi, bihotzez ekin eta hamaika zauriz markatua irten denari gaur ezagutza hau egitea zilegi eta bidezko deritzat.